

XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4424

139/2019 DEKRETUA, irailaren 10ekoa, Euskadin lege-gordailuaren kudeaketa arautzen duena.

Autonomia Estatutuak 10. artikuluan ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskubidea daukala kulturaren alorrean, eta, zehatzago aipatuta, honako gai hauetan: ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoan, eta Estatuaren izenean ez dauden artxibo, liburutegi eta museoetan, hartara eragotzi gabe Konstituzioaren 149.1.28 eta 149.2 artikuluetan xedatutakoa.

Lege-gordailuaren instituzio juridikoaren helburua da: herri baten kulturaren edizio idatzizkoa, ikusizkoa, soinuakoa, ikus-entzunezkoa eta digitala biltzea, babestea, zabaltzea eta irispidean jartzea, jabetza intelektualaren eskubideei buruzko araudiaren eta datu pertsonalen babesaren esparruan; eta kultura-prestazio publiko gisa eratzen da.

2011. urtean, Lege-gordailuaren uztailaren 29ko 23/2011 Legea onartu zen, zeinak editorea jotzen baitu gordailugile nagusizat eta zeinaren bitartez xedatzen baita euskarri ukigarria duten eta euskarri ukiezina duten argitalpenak gordailutzea. Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuak 23/2011 Legearen arau-garapena osatu zuen; izan ere, lineako argitalpenen lege-gordailua arautzeko orduan, lineako argitalpen esapidea erabiltzen du euskarri ukiezina duten argitalpenak izendatzeko, hori baita argitalpen elektronikoen eremuan gehien erabiltzen den terminoa.

Estatu mailako araudia indarrean sartu denez gero, beharrezkoa da Euskadin lege-gordailuaren kudeaketa egokitzea, eta erregelamendu eguneratua izatea, euskarri ukigarria duten argitalpenak eta lineako argitalpenak integratuko dituen.

Dekretu honek, Lege-gordailuaren uztailaren 29ko 23/2011 Legearen azken xedapenetako bigarrenean ezarritakoan oinarrituta, lege-gordailuaren kudeaketari buruzko alderdiak garatu eta aplikatzen ditu Euskadin, eta zazpi kapitulutan egituratzen du edukia: xedapen orokorrak, lege-gordailua gauzatzeko betebeharra, lege-gordailuaren administrazioa, euskarri ukigarria duten argitalpenen lege-gordailuaren zenbakia, euskarri ukigarria duten argitalpenen lege-gordailua gauzatzea, lineako argitalpenen lege-gordailua eta, azkenik, zehatzeko ahala eta ikuskatze-lana.

Euskadiko Editoreen Elkarteari kontsulta egin zaio dekretu hau egiteko.

Horrenbestez, dagozkion nahitaezko txostenak eman eta gero, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenarekin bat etorritz, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2019ko irailaren 10ean egindako bileran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea da lege-gordailuaren kudeaketa arautzea Euskadin; hori dela eta, baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari jaso ditzan edozein euskarritan egiten diren eta edozein prozeduraren bitartez –doan zein kostu bidez– publikoki banatzeko edo komunikatzeko diren mota orotako argitalpenen aleak; unean uneko garai historikoko euskal kulturaren ondare bibliografikoa, soinuakoa, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa eta digitala babes-teko eta ondare hori irispidean jartzeko xedez –helburu kulturalarekin, informazio eta ikerketarako, eta lanak berrargitaratzeko–, eta hori guztia hauetan xedatutakoarekin bat etorriz: Lege-gordailuaren uztailaren 29ko 23/2011 Legea, Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretua, eta jabetza intelektualari eta datuen babesari buruzko legedia.

2.– Dekretu honen bitartez, honako lan bibliografiko eta argitalpen hauen lege-gordailua kudeatzen da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan, euskarri ukigarrian edo linean editatu edo ekoiztutako lan bibliografikoak.

b) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, Espainiako estatuan, euskarri ukigarrian editatu edo ekoiztutako euskarazko argitalpenak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoari loturiko domeinu-izen baten pean editatutako edo ekoiztutako lineako argitalpenak.

d) Euskaraz editatu edo ekoiztutako argitalpenak.

e) Euskal kulturarekin lotutako lineako argitalpenak.

2. artikulua.– Lege-gordailuaren helburua.

Lege-gordailuaren helburua, Euskadin, euskal lan bibliografikoak eta argitalpenak bildu, biltegitatu eta kontserbatzea da, babesteko eta datozen belaunaldientzat uzteko xedez, bai eta lan horien edizioaren edo ekoizpenaren estatistika ofizialen informazio-iturri zehatza izateko xedez ere.

II. KAPITULUA

GORDAILUA GAUZATZEKO BETEBEHARRA

3. artikulua.– Lege-gordailua gauzatu behar duten lanak.

1.– Lege-gordailuak hauek hartzen ditu:

a) Euskarri ukigarrietan banatzen diren bibliografia-lanak; aurrerantzean, euskarri ukigarria duten argitalpenak.

b) Euskarri ukiezinetan banatzen diren bibliografia-lanak; aurrerantzean, lineako argitalpenak.

2.– Euskarri ukigarria duten honako argitalpen eta baliabide mota hauen launa ale gordailutu behar dira Euskadin:

a) Liburu eta liburuxken paperezko lehenengo argitalpenak eta berrargitalpenak, edozein dela ere haiek inprimatzeko modua, saltzekoak izan edo ez izan.

b) Baliabide jarraituak, hala nola argitalpen seriatuak, aldizkariak, urtekariak, oroitidazkiak, egunkariak eta baliabide integragarriak (orri solte eguneragarriak, kasurako).

c) Partiturak.

d) Mapak, planoak, atlasak, mapa nautikoak, aeronautikoak eta zerukoak.

3.– Euskarri ukigarria duten honako argitalpen eta baliabide mota hauen hiruna ale gordailutu behar dira Euskadin:

a) Berez propaganda komertziala ez diren baina zabalkunde-helburua duten orri inprimatuak.

b) Edozein teknikaz egindako estampa originalak.

c) Argazki editatuak.

d) Paisaia eta hirien postalak.

e) Iragarki- eta publizitate-kartelak.

f) Maila hauetako testu-liburuak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

g) Soinu-dokumentuak.

h) Ikus-entzunezko dokumentuak.

i) Mikroformak.

j) Edozer euskarri ukigarri duten dokumentu elektronikoak, unean uneko teknikak ahalbidetzen dituenak, baina Internet bidez libre eskuratzeko moduan ez daudenak.

k) Edozein film zinematografikoren dokumentu osoen kopia berriak –dela dokumentala, dela fikzioa–, jatorrizko bertsioan, eta haren gaineko publizitate-materialaren ale bat.

4.– Honako hauen bina alek gauzatu behar dute lege-gordailua Euskadin: laminak, kromoak, kartak, aurreko apartatuan jasota ez dauden postalak, eta euskarri ukigarrian argitaratutako zorian-txartelak.

5.– Aurreko apartatuetan aipatutako aleetako bat euskarri ukigarrian edo euskarri ukiezinean gordailutu ahal izango da. Bigarren aukeraren alde egiten bada, artxibo digitalaren gordailua bitarteko elektronikoak baliatuz gauzatu ahal izango da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez.

6.– Era berean, baliteke Euskadin gordailua gauzatu beharra izatea webguneetako eta lineako argitalpenetako artxiboen kopia banak, barneko metadatuekin batera, argitalpenon irispidea librea izan zein mugatua izan, baldin eta Euskadiko Kontserbazio Zentroak (dekretu honen 9. artikuluan aipatua) aukeratu baditu eta honako baldintza hauetako bat betetzen badute:

a) Euskaraz egotea.

b) Helbidea, bizilekua edo establezimendu iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoan daukan edozein pertsona fisiko edo juridikok editatua edo ekoitzia izatea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldeari loturiko domeinu-izen baten pean editatua edo ekoitzia izatea.

4. artikulua.– Lege-gordailua gauzatu beharrik ez duten argitalpenak.

Ez dute lege-gordailua gauzatu beharrik izango Euskadin honako hauek:

a) Lege-gordailuaren uztailaren 29ko 23/2011 Legearen 5. artikuluan aipatutako argitalpenak.

b) Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako lineako argitalpenak.

5. artikulua.– Lege-gordailuaren zenbakia eskatzera eta lege-gordailua gauzatzera edo gauzatzeko laguntzera behartuta dauden pertsonak.

1.– Helbidea, bizilekua edo establezimendu iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoan daukan editorea behartuta dago lege-gordailuaren zenbakia eskatzera. Behartuta dagoen editoreak eskatzen ez badu, ekoizleak, inprimatzaileak, estanpatzaileak edo grabatzaileak eskatu beharko du, eta hurrenkera horretan eskatu ere.

2.– Editoreak bizilekurik edo sukurtsalik ez badu Espainiako estatuan, edo baliabide mota dela-eta beharrezkoa bada, helbidea, bizilekua edo establezimendu iraunkorra Euskadin duen ekoizleak, inprimatzaileak, estanpatzaileak edo grabatzaileak gauzatu beharko du euskarri ukigarria duten argitalpenen gordailua.

3.– Lineako argitalpenen eta webguneen editorea edo ekoizlea behartuta dago lineako argitalpen horien eta webguneen lege-gordailua gauzatzeko laguntzera; Euskadiko Kontserbazio Zentroak bilduko ditu.

6. artikulua.– Jarduketa subsidiarioa.

Lege-gordailuari dagozkion betebeharrak betetzen ez badira, lege-gordailuaren bulegoek arduradunari eskatuko diote betebeharrak bete ditzala hilabeteko epean, eta, horrela egin ezean, dekretu honen 21. artikuluan ezarritako zehatzeko ahala egikarituko da.

III. KAPITULUA

LEGE-GORDAILUAREN ADMINISTRAZIOA: GORDAILU-BULEGOAK ETA EUSKADIKO KONTSERBAZIO ZENTROA

7. artikulua.– Lege-gordailuaren administrazioa.

Euskadin, lege-gordailuaren administrazioa lege-gordailuaren bulegoen eta Euskadiko Kontserbazio Zentroaren bitartez kudeatuko da.

8. artikulua.– Lege-gordailuaren bulegoak.

Lege-gordailuaren bulegoak euskarri ukigarria duten argitalpenen gordailuzainak dira. Euskadiko Kontserbazio Zentroa atxikita dagoen zerbitzuak kudeatuko ditu, eta lurralde historikoetako hiru hiriburuetan egongo dira.

9. artikulua.– Euskadiko Kontserbazio Zentroa.

Eusko Jaurjaritzan kulturaren alorreko eskumena daukan sailari atxikita dago Euskadiko Kontserbazio Zentroa, eta Euskadiko Liburutegiak beteko ditu haren funtzioak, edo, hala badagokio, Euskadiko Liburutegiari esleitutako funtzioak betetzen dituen liburutegi-zerbitzuak.

10. artikulua.– Errepositorio digitalak.

1.– Euskadiko Kontserbazio Zentroak beharrezkoak jotzen dituen errepositorioak sortzea erabaki ahal izango du, atzemandako edo entregatutako lineako argitalpenak kontserbatzeko eta haien zabalkundea egiteko, ahalik eta kudeaketa eraginkorrena izateko helburuarekin.

2.– Aurreko apartatuan aipatutako errepositorioetan irispide mugatuko baliabiderik badago, Euskadiko Kontserbazio Zentroak instalatutako terminalen bidez baino ezin izango dituzte egin kontsultak erabiltzaileek, datu pertsonalen eta jabetza intelektualaren babesari buruzko legedia errespetatuz.

IV. KAPITULUA

EUSKARRI UKIGARRIA DUTEN ARGITALPENEN LEGE-GORDAILUAREN ZENBAKIA

11. artikulua.– Euskarri ukigarria duten argitalpenen lege-gordailuaren zenbakia eskatzea.

1.– Euskarri ukigarria duen argitalpen bat inprimatzen edo ekoizten amaitu baino lehen, bete-beharra daukan pertsonak lege-gordailuaren zenbaki bat eskatu beharko du helbidea, bizilekua edo establezimendu iraunkorra daukan lurralde historikoko lege-gordailuaren bulegoan.

2.– Lege-gordailuaren bulego bakoitzak erregistro bat izango du, lege-gordailuaren hurrenez hurreneko zenbaketa propioa jasotzeko.

12. artikulua.– Eskabidea telematikoki izapidetzea.

Lege-gordailuaren zenbakia telematikoki eskatuko da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bitartez, eta eskaera hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoa jasoko da. Erregistro horrek eskaera telematikoki jaso dela egiaztatzen duen agiri elektronikoa bidaliko du automatikoki, interesdunak frogatzen izan dezan Administrazioak eskaera jaso duela egiaztatzeko.

13. artikulua.– Euskarri ukigarria duten argitalpenen lege-gordailuaren zenbakia esleitzea.

1.– Eskabidea aztertu ondoren, lege-gordailuaren bulegoak lege-gordailuaren zenbaki bat esleituko dio euskarri ukigarria duen argitalpenari, eta interesdunari jakinaraziko dio bitarteko elektronikoen bidez.

2.– Zenbaki hori behin-behinean esleituko da, gordailua gauzatu arte edo zenbakia bera balio-gabetu arte.

3.– Lege-gordailuaren zenbakia LG siglarekin adieraziko da (Lege Gordailua), eta haren ondoren hauek: gordailu-bulegoa dagoen lurralde historikoaren siglak, gordailua gauzatzeko zenbakia, eta urtea (lau zifra). Lege-gordailuaren zenbakia osatzen duten zatiak zuriune batez banatuko dira, urtea izan ezik, aurretik gidoi bat eramango baitu. Urtea bakoitza amaitutakoan, zenbaketa itxi egingo da, eta, berriro hasiko da zenbaketa beste urte bat hastearekin batera.

4.– Hauek dira aurreko apartatuak aipatzen dituen lurralde historikoen hiriburuen laburdurak: BI, Bilborena; D, Donostiarena, eta G, Vitoria-Gasteizena.

5.– Kasu hauetan, lege-gordailuaren zenbakia bakarra izango da beti:

a) Baliabide jarraituak, aldizkako argitalpenak (egunkariak, astekariak...), argitalpen seriatuak eta baliabide integragarriak, nahiz eta haien periodikotasuna aldatu. Erakunde editoreak edo inprimatzaileak helbidea aldatzen badu ere, apartatu honek hizpide duen lege-gordailuaren zenbakia berdin atxikiko da, baita euskarri material ezberdinetan zabaltzen direnen kasuan ere.

b) Zenbait liburukitako argitalpenak, edo dokumentu batez baino gehiagoz osaturik daudenak, nahiz eta euskarri material ezberdinetan zabaldu.

6.– Argitalpen batek edizio bat baino gehiago baditu, edizio bakoitzak lege-gordailuaren zenbaki ezberdina eramango du, egunkarien edizioen kasuan izan ezik, lege-gordailuaren zenbaki bera eramango baitute.

7.– Lege-gordailuaren zenbakia erraz ikusteko eta identifikatzeko moduko toki batean egongo da. Liburu formatuko argitalpenetan, nahitaez, ISBN inprimatuta dagoen orri berean egongo da lege-gordailuaren zenbakia, eta eskubide-orrialdean edo atari kontrako orrialdean jarri ahal izango da. Egunkari formatua duten argitalpen seriatuetan, mantxetan jarri beharko da lege-gordailuaren zenbakia.

V. KAPITULUA

EUSKARRI UKIGARRIA DUTEN ARGITALPENEN GORDAILUA GAUZATZEA

14. artikulua.– Euskarri ukigarria duten argitalpenen lege-gordailua gauzatzea.

1.– Betebeharra duen pertsonak hiru hileko epea izango du helbidea, bizilekua edo establezimendu iraunkorra duen lurralde historikoko lege-gordailuaren bulegoan gordailu hori egiteko, lege-gordailuaren zenbakia esleitu zaiola jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; argitalpena banatzen edo saltzen hasi baino lehen betiere.

Justifikatutako arrazoiren bat dela medio, ez bada gordailua gauzatu aipatutako epean, luzapena eskatu ahal izango du, baina ezin izango da hasierako epearen erdia baino gehiago luzatu. Isiltasun positiboaren bidez, luzapena eman egin dela ulertuko da.

2.– Betebeharra duen pertsonak aurkeztutako aleren batek zatirik falta badu edo akatsik badu, gordailu-bulegoak eskatu behar dio beste ale bat aurkezteko, osorik eta akatsik gabe, hilabeteko epean, errekerimendua egiten denetik aurrera.

3.– Lanak oso-osorik gordailutu behar dira; faszikulu-bildumak, osorik eta azaleztatuta, eta serie mugatuko komiki-bildumak, osorik.

4.– Azaleztatze edo formatu edo aurkezpen molde bat baino gehiago dituzten lanetan, gordailutzeko betebeharra banaka beteko da molde horietarako, bakoitza lan independente bat balitz bezala.

5.– Eguneroko prentsa eta aldizkako argitalpenak harpidetzat hartu behar dira, lege-gordailuaren bulegoetan berehala entregatzen direla bermatu ahal izateko.

6.– Lege-gordailuaren bulegoek arduraz zainduko dute lan beraren ondoz ondoko argitalpen seriatuei edo liburukiei esleitutako lege-gordailuaren zenbakiak ez direla bikoizten.

15. artikulua.– Euskarri ukigarria duten argitalpenen lege-gordailuaren zenbakia baliogabetzeko kasuak.

1.– Dekretu honen 14. artikuluko 1. apartatuan ezarritako epean, betebeharra duen pertsonak esleitu zaion lege-gordailuaren zenbakia baliogabetzeko eskatu ahal izango du, argitalpena egiten ez bada edo gauzatzea eragozten duen arrazoi justifikaturen bat badago. Erantzunik ez badago, baliogabetzeko eskaera isiltasun positiboaren bidez onartu dela ulertuko da.

2.– Lege-gordailua gauzatu behar ez duen materialen bati lege-gordailuaren zenbakia eman bazaio, dagokion lege-gordailuaren bulegoak baliogabetuko du zenbaki hori, eta ez da gordailutuko.

3.– Baliogabetzen diren zenbakiak ezin izango zaizkio beste argitalpen bati esleitu.

16. artikulua.– Euskarri ukigarria duten argitalpenen destinoa.

1.– Euskadiko Kontserbazio Zentroak euskarri ukigarria duten argitalpenen bina ale zainduko ditu (dekretu honen 3. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuetan aipatutako argitalpenena). Eta 3. artikuluko 5. apartatuan ezartzen denez, ale bietako bat euskarri ukiezinean zaindu ahal izango da.

2.– Espainiako Liburutegi Nazionalera hauek bidaliko dira: 3. artikuluen 2. apartatuan aipatutako argitalpenen bina ale eta 3. artikuluen 3. apartatuan aipatutako argitalpenen ale bana.

17. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo editatu edo ekoiztako euskarri ukigarria duten euskarazko argitalpenak.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo –baina Espainiako estatuko lurraldean– euskarri ukigarria duten euskarazko argitalpenak argitaratzen dituen editoreak edo, bestela, ekoizleak, inprimatzaileak, estanpatzaileak edo grabatzaileak lan horien bina ale bidali beharko ditu Euskadiko Kontserbazio Zentrora. Aleetako bat euskarri ukiezinean bidali ahal izango da, 3. artikuluen 5. apartatuan ezartzen denez.

VI. KAPITULUA

LINEAKO ARGITALPENEN LEGE-GORDAILUA

18. artikulua.– Lineako argitalpenen lege-gordailua kudeatzeko prozedura.

1.– Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuan ezarritakoa aplikatuta, Euskadiko Kontserbazio Zentroari dagokio erabakitzea lineako zer argitalpen eta zer webgune atzemango edo gordailutuko diren, kontserbatu eta kontsultatu ahal izateko, dekretu honen 3. artikuluko 6. apartatuan aipatzen diren edukien lagin zabal eta adierazgarri bat jasotzeko irizpideari jarraituz.

2.– Irispide libreko lineako argitalpenen kasuan, Euskadiko Kontserbazio Zentroak komunikazio-sareen bitartez argitalpen horiek hautatzeko eta atzemateko prozedurak eta maiztasuna ezarriko ditu, eta eduki horien editoreak edo ekoizleak laguntza emango du hautaketa- eta atzemate-lan horietan.

3.– Irispide mugatuko lineako argitalpenen kasuan, editoreak edo ekoizleak beharrezkoak diren gakoak emango dizkio Euskadiko Kontserbazio Zentroari, argitalpenok eskuratu eta erreproduzitzeko edo komunikazio-sareen bitartez transferitu ahal izateko. Gainera, beharrezkoak diren bitartekoak emango dizkio zentro horri gordailua gauzatu behar duten lineako argitalpenak kontsultatzeko eta erreproduzitzeko aukera egon dadin etorkizunean, inolako gakorik sartu behar izan gabe kontsultatu edo kontserbatu ahal izateko.

4.– Euskadiko Kontserbazio Zentroak lineako argitalpenak eta webguneak hautatzeko eta atzemateko eskaera egin ondoren, editoreak edo ekoizleak hilabeteko epea izango du gehienez ere erantzuteko, eskaera egin den unetik aurrera.

5.– Aurreko apartatuetan ezarritako betebeharrak ezin izango diete kalterik ekarri irispide mugatuko lineako argitalpenen eskubideen titular diren pertsonen interes legitimoak, eta ezin izango diote karga ekonomikorik gehitu argitalpenak eskuragarri jartze soiletik zuzenean eratorritakoari.

6.– Ez zaie lege-gordailuaren zenbakirik esleituko lineako argitalpenei. Lineako argitalpenen editoreek edo ekoizleek aukera izango dute ISBN zenbakia eskatzeko, edo nazioarteko erakunde eskudunek onartzen duten beste edozein zenbakizko identifikatzaile.

19. artikulua.– Lineako argitalpenak kontserbatzeko lankidetzak.

1.– Lineako argitalpenen lege-gordailua arautzen duen uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, Euskadiko Kontserbazio Zentroak lankidetzak-hitzarmenak egin ahal izango ditu argitalpenen, webguneen eta baliabide digitalen lineako banaketa egiteko plataformak dauzkaten erakunde publiko edo pribatuekin (erakundeek beraiek editatu edo ekoiztutakoak direnean), baldin eta kontserbatzeko errepositorio segurutzat hartzen badira. Horretarako, plataforma horiek eginkizun horretarako behar diren betekizunak bete beharko dituzte, Euskadiko Kontserbazio Zentroak ezarritako irizpideen arabera eta zentro horrek berak ikuskaturik.

2.– Lankidetzak-hitzarmenetan, besteak beste, honako alderdi hauek jasoko dira:

- a) Erakunde laguntzailearen errepositorioaren ezaugarriak.
- b) Erakunde laguntzailearen argitalpenak edo baliabideak kontserbatzeko prozedurak.
- c) Lankidetzaren indarraldia.

3.– Aurreko apartatuan adierazitakoa dela-bide, erakunde batekiko lankidetzak-hitzarmen bat egiten denean, Euskadiko Kontserbazio Zentroak ez ditu erakunde horren baliabideak atzemango; izan ere, erakunde horrek, akordioa indarrean dagoen bitartean, argitalpenak eta baliabideak kontserbatzeko betebeharra izango du, bai eta plataforma jardunean mantentzeko ere. Lankidetzako erakundeak bere baliabideak irispidean jarriko ditu, Euskadiko Kontserbazio Zentroarentzat dekretu honen 3. artikuluko 18. apartatuan ezarritako baldintza berberetan.

4.– Edozein arrazoi dela-eta, aurreko apartatuetan aipatutako erakunde publiko edo pribatuak desagertzen badira edo erakunde horiek ez badituzte betetzen lankidetzak-hitzarmena ahalbidetu zuten baldintzak, Euskadiko Kontserbazio Zentroari eman beharko zaizkio erakunde horietan dauken euskarri ukiezina duten baliabideak.

5.– Era berean, erakunde horiek kontserbaziorako eta kontsultak egiteko hartutako konpromisoak betetzea eragozten dituzten gorabeherak gertatzen direnean, erakundeok lege-gordailua gauzatzeko betebeharra bete beharko dute, dekretu honen 18. artikuluan adierazten denez.

6.– Euskadiko Kontserbazio Zentroak eguneratuta edukiko du lege-gordailuaren errepositorio seguru gisa lankidetzan aritzea erabakitzen duten banaketa-plataformen zerranda. Bertan, zehaztuko du zein diren errepositorioaren ezaugarriak, zer baliabide kontserbatuko dituen erakunde laguntzaileak eta zenbat denbora egongo den indarrean lankidetzak-hitzarmena.

20. artikulua.– Domeinuak kudeatzeko ardura duten erakundeek eta agente erregistratzaileek domeinuak identifikatzea.

1.– Interneteko domeinu-izenen erregistroa kudeatzeko ardura duten erakundeek –Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean ezarriak– erregistratuta dauzkaten domeinu-izenen berri emango diote Euskadiko Kontserbazio Zentroari, hala eskatzen badie.

2.– Era berean, domeinu-izenen agente erregistratzaile gisa jarduten duten pertsona fisiko edo juridikoek informazio bera emango diote Euskadiko Kontserbazio Zentroari, aurreko paragrafoan aipatutako erregistroetan egon ez eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko lotura duten domeinuei dagokienez.

VII. KAPITULUA

ZEHATZEKO AHALA ETA IKUSKATZE-LANA.

21. artikulua.– Zehatzeko ahala.

1.– Honako hauetan xedatutakoaren arabera egikarituko da zehatzeko ahala: Lege-gordailuaren uztailaren 29ko 23/2011 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, edo horiek ordeztzen dituen araudia.

2.– Euskadiko Kontserbazio Zentroa atxikita dagoen sailari dagokio zehatzeko ahala, eta Euskadiko Liburutegiak izapidetuko du dagokion prozedura, edo, hala badagokio, Euskadiko Liburutegiari esleitutako funtzioak betetzen dituen liburutegi-zerbitzuak.

3.– Kulturaren alorreko eskumena daukan saileko sailburuordeak dauka zehapen-prozedura ebazteko eskumena.

4.– Zehapenen graduazioa proportzionaltasun-printzipioaren arabera egingo da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarri bezala.

5.– Zehapenak jasotzeak ez du salbuesten lege-gordailua gauzatzeko betebeharretik.

22. artikulua.– Erantzuleak.

Lege-gordailuaren alorreko arau-hauste administratiboan erantzuleak izango dira Lege-gordailuaren uztailaren 29ko 23/2011 Legean tipifikatuta dauden kasuetan –eta dekretu honetan zerrendatuetan– egitez edo ez-egitez sartuta dauden pertsonak.

23. artikulua.– Arau-haustek.

1.– Arau-hauste arintzat joko dira honako hauek:

a) Lege-gordailua gauzatu behar duen argitalpen baten gordailua ez gauzatzea dekretu honetan agindutako epeetan eta ale-kopuruarekin.

b) Lege-gordailua gauzatzera behartuta dagoen baina behar duen zenbakia ez daukan edo gordailua gauzatu ez duen argitalpen baten aleak banatzea.

2.– Arau-hauste astunak izango dira honako hauek:

a) Lege-gordailuaren zenbakia iruzurrez edo doloz manipulatzeko.

b) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

c) Lege-gordailua gauzatu behar duen pertsonak datu faltsuak aurkeztea.

d) Ikuskatze-lana oztopatzea.

e) Irispide mugatua edo murriztua duten lineako argitalpen elektronikoen arduradunek irispidea ukatzea gordailu-zentroei edo zentro horiek izendatutakoei, lege-gordailuaren funtzioak betetzen dihardutenean.

24. artikulua.– Zehapenak.

Lege-gordailuaren uztailaren 29ko 23/2011 Legearen 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako zehazpen hauek ezarri ahal izango dira:

- 1.– Arau-hauste arinak egiteagatik, 1.000 eta 2.000 euro arteko isun-zehapenak jarriko dira.
- 2.– Arau-hauste astunak egiteagatik, 2.001 eta 30.000 euro arteko isun-zehapenak jarriko dira.
- 3.– Arau-hauste horiei dagozkien diru-kopuruak, kontsumoko prezioen indizearen bilakaerarekin bat eguneratu ahal izango dira, zeina ofizialki argitaratzen baita.

25. artikulua.– Ikuskatze-lana.

Lege-gordailuaren alorreko araudia betetzen dela ikuskatzeko eta kontrolatzeko egiaztatze-lana Euskadiko Kontserbazio Zentroa atxikita dagoen sailari dagokio, eta funtzio hori Euskadiko Liburutegiak beteko du, edo, hala badagokio, Euskadiko Liburutegiari esleitutako funtzioak betetzen dituen liburutegi-zerbitzuak, hargatik eragotzi gabe goi-ikuskaritzako lana, zeina Espainiako Liburutegi Nazionalak egingo baitu, 2011ko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen 11. artikuluko 2. apartatuan adierazitakoari jarraituz.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Lankidetzaren hitzarmenak.

Eusko Jaurlaritzak beste erakunde eta entitate publiko edo pribatu batzuekiko lankidetzaren hitzarmenak sinatzea bultzatuko du, lege-gordailuaren kudeaketa Euskadin hobetu eta osatu dadin.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Euskarri ukigarriko argitalpenen lege-gordailuaren zenbakia esleitzeko nomenklatura berria, zeina dekretu honen 13. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan xedatu baita, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera erabiliko da.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 10ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.